

Juan San Martin Liburutegia

“Idazlearekin harixa emoten”



TURISTA KLASEA

Kattalin Miner, Susa, 2020

Iruzkina: Antxon Narbaiza, 2022-02-08



Wikipedian

https://eu.wikipedia.org/wiki/Kattalin_Minor

Literaturaren zubitegia

<https://zubitegia.armiarma.eus/?i=959>

Gogoeta bat hasteko

Nerea Arrienen **Jende likidoaren** ondoren, handik eta, Kattalin Minerren **Turista klasea** lanera, egiten dugun jauzia oso nabarmena da. Arrienen ipuin-eleberrian fikzioak errealitatea “ito” egiten du; inoiz fikziotik “ateratzen” diren pertsonaiek, gertakariak, halako kutsu errealista bat hartzen dute baina salbuespen dira. Oro har, nobela edo dena delako hura fikziozko eraikin handia da non eleberriaren haria jarraitzeak ahalegin handia eskatzen duen irakurlearen aldetik.

Esku artean dugun Kattalinen lanean, ostera, errealitate guztiz identifikagarri baten aurrean gaude non dena “neurtua” datorren: gertakariak gidoi “errealista” bati lotzen zaizkio. Hemen, aurrekoan ez bezala, fikzioa da salbuespen, gainerakoa errealitatearen interpretazioa izan liteke.

Sinopsia

Kattalin Minerrek idatzi duen eleberria 13 ataletan banaturik dator, 113 orrialdetan.

Irakurleak, lehen begirada batez, aise irakurriko duen nobela baten aurrean dagoela sumatuko du: hari narratiboa, pertsonaiak, ekintzak, orokorrean problematika jakin eta ezagun batzuen biran ari dira.

Pariseko espetxe batean datzan laguna bisitatzera jotzen du protagonista nagusiak. Badira lau urte bertan dagoela, indarkeriarekin lotura duten arrazoi politikoak direla eta.

Bisitariaren joan-etorriek ez lukete *a priori* interes gehiegi, ala bai? Euskal Herria-trena-Paris-trena eta itzulbidaia, horra protagonistaren ibilbidea. Horixe litzateke gure protagonistaren errutina. Baina espetxe-bizitzak, Parisen ezagun dituen txiletar iheslariek eta trenean aurkitzen dituen espezimenez saltsa ematen diote Minerren kontakizunari.

Egituraz

Hirugarren pertsonan idatzia ez dira, oker ez bagaude, protagonista nagusiaren ezta Pariseko Fresnesko espetxean zain duen bere lagunaren izenak ematen. Ostera, Pariseko txiletar iheslarien izenak ageri dira. Kontakizunari gatz eta piperra eskaintzen diotenak, zalantzarik gabe.

Desberdin izateak badu prezio bat

Uste dut behin bakarrik aipatzen dela nobelan. Hots, LGBTIQ akronimoak gutxienez zortzi kolektibo biltzen omen ditu bere baitan, lesbiana eta gayetatik hasita, bisexual, trans guztiak, travesti, sexu arteko eta queer kolektiboak barne.

Gure nobelako Pariseko hego amerikar taldeak erabat marjinatorik bizi dira Parisen. Aldiri arriskutsuan bizi dira, haiengana ez da “argiaren hiriaren” glamour-ik iristen.

Bihotz oneko jendea beti prest solidarioak izateko. Baina bere joera sexualak galtzen ditu gizartearen ulertezintasunaren aurrean: bortxa eta indarkeria, narratzaileak erakusten dituen irudiak gogorak dira oso. Ez dute ia ezer baina prest daude euskaldun hura babesteko, laguntzeko.

Baina arestian esan duguna funtsezko errealitate baten isla da. Eta da, hain zuzen, estatusa. Norbaitek esana du, pobre izateak gaixotasun **gehitu** bat dela. Erantsi egiozu horri gizarteak oraindik nekez onartzen duen konbentzionalismotik at dabilen portaera zehatz batekoa zarela. Eta hori da egoera, oraindik ere, XXI. munduan, non esan ohi den mendebaldean inoizko estatu sozialenak bizi ditugula, alegia, hau da, gizarte antolaketa justuenak. Egia izan liteke, alegia, aurreko mendeetan izan zen klase edo leinu desberdintasuna izugarria izan zela. Baina batak ez du bestea kentzen eta, gurean ere, giza-justizia gaur egun ere oso urruti dago gizartearen desoreka asko ezabatu ahal izateko.

Horrelako zerbait gertatzen zaie Parisen egoera ezin eskasagoan bizi diren gure nobelako migratzaileei.

Horren aurrean, protagonista nagusiaren gogoeta egoki dator harira. Pariseko migratzaile haiek egiten zituzten ilegalitateak eta bereak ezberdinak ziren, zinez. Haienak bizirauteko ilegalitateak ziren, bereak nolakoak ziren ezin zitzakeen bat batean definitu baina ez ziren berberak (32).

Espetxeen mundua

Gizakiak gizataldetik aparte utzi nahi izan du zigorturik bere legeak hautsi izan duen pertsona. Horretarako espetxeak eraiki izan ditu, urteen poderioz geroz eta handiagoak, geroz eta “seguruagoak” baina geroz eta gizatasunik gabekoagoak, deshumanizatuagoak. Hala moduzko segurtasun baten morroi itsua. Izan ere, segurtasuna eta askatasuna beti jo baitira aurrez aurre oximoron garbian.

Pariseko espetxeen egoera ongi ageri da gure ustez eleberrian kontatua. Kontrol sententzioa, sartzan zaren unetik bertatik nabaria da. Barruko burokrazia handia, berriz: txartela, miaztea, kartulina berdea, kontrola berriro ere...

Beste horrenbeste agintea ahalguztiduna dela ikustean. Barruan dagoenak ez ezik kanpotik datorrenak ere “paperak” ordenean ekarri behar ditu. Adierazgarria, bisitariaren kezka, behin eta berriro ea Nortasun Agiria aldean izango ote duen zalantzaz: “ez da ba iraungita egongo?”

Kezkagarria halaber, ikustea kartzelak gizarteak kanpoan dituen kontraesan guztiak erreproduzitzen dituela barruan. Fleury edo Fresnes-ko espetxeak izan, gauzak ez dira gehiegi aldatzen.

Azken urteetako mundu islamikoaren indarkeria espetxean ere nabari da. Preso asko ideologia hartakoak dira. Charlie Hebdo-ko atentatuaren ondoren deus ez da berdina izango.

Eta, hariarekin lotuz, egiaztapen bat: bisita hartan gure protagonista ohartu da pertsona **zuri** bakarra bera dela.

Eta gero, behin eta berriz ikusi izan dena, intimitaterik eza. Protagonistaren lagun espetxeratua behin baino gehiagotan jarki izan zitzaien ziega zainei. Erresistentzia ekimenak ziren gero zigorra jasoko bazuten ere, presoentzako halako egiaztapen moduko zerbait beren buruei esateko bizirik jarraitzen zutela frogatuz.

Askatasuna

Espetxeratu orok askatasuna du amets. Horixe nahi du kontakizun honetako presoak ere. Eta lau urte luzez milaka kilometro egin behar dituenak hura ikusteko? Horixe sentitzen bide du lagunak. Ez du gehiago joan behar izango. Agur goizean goizeko esnaldi gogorrak, agur tren bidaiak luzeak, euren lotura etengabeekin, agur espetxeko funtzionario ziztrinei, agur, iguina sortzen dion Frantzia! Laburbilduz, barruan dagoenak libertatea estimatuko du, baita berari babesa ematera etorri ohi den lagunak.

Migratzaile bereziak

Ez dugu zalantzarik nobelaren ikusgarritasunari Pariseko migratzaileen bizimoduak erakargarritasuna eskaintzen diola. Izan ere, zelanbait kontaeraren errutinak: tren-espexea-trena, kikildu egin gaitzake. Eleberriko atal bat nahikoa da, III.a, kolektibo hark bizi zuen egoeraren gordintasunaz jabetzeko. Agustin-Agustina, Marce-Mateo, Hego Amerikako diktaduretatik ihesi iritsi ziren pertsonak ditugu. Protagonista nagusiak Marseillako bilera berezi batean ezagutu zituen, hain zuzen: “norbere uzkiarekin harreman sana garatzeko” tailer batean.

Eta migratzaile politiko direla frogatu ahal izateko, protagonista bisitariari haietako batek euskaldunon borroka armatuaren estrategia zalantzan jartzen dionean sortuko da errieta txikia alde bien artean (50-51 orr.). Horrelakoetan gertatu ohi den bezala, inork ez du inor konbentzitzuko. Egia esatera, pasadizotzat jo liteke eztabaida hura nobelaren testu inguru osoan.

Borroka gizartean bere lekua lortu ahal izateko

Sexu joeren kasuistikak harritu egin gaitzake, baina errealitate bat denik ezin uka. Eta ezin inor eskandalizatu, joera edo hautatze guztiak zilegi baitira, askatasunez egiten badira. Pariseko jende-multzo hura, heterosexualitate kanonikotik at geratzen diren joera sexualen adibide baita bere txikian. Narratzaileak ere arazoak ditu definizioetan: “maritxuak, hiru trans-mari-bollo” ikusten ditu begien aurrean (30).

Marceren kasua ere adierazgarria iruditzen zaigu; protagonistak berak ere zalantzak baititu haren sexuaz: (...) “ez zekien zein generotan zuzendu behar zitzaion”. Arrazoia, jarraian dator: (...) “Izan ere, ileordea jantzita zuen, eta hizketaldi dibertigarri eta amaigabeetan bere burua feminismoz zein maskulinoz izendatzen zuen” (Ibid.)

Orain Pariseko aldirietan beharturik daude edozeri eusten biziraupena lortu ahal izateko. Lekurik miserableenean behartu bizi dira LGBTIQko haiek baina solidaritate izugarria dute beraien artean eta ezbeharrean daudenei laguntzeko. Protagonistari berari asko laguntzen diote nolabaiteko ostaturia eta konpainia eskainiz, bere bizitzari buruzko galderarik egin gabe.

Etsikortasuna

Gogorra egiten zaio protagonistari milaka kilometroko bidaia Frantziako espexea hartara. Parisera doanik ere ezin esan, “ville lumière” baino ilunaren hiria da gehiago bidaiari berezi harentzat. Geltokiak (Montparnasse, Gare de l’Est), metroa (Port d’Orléans), izenak, erreferentziak baino ez dira beretzat. Ez du bertan ezer erakargarrik ikusten. Izan

ere, bera ez doa ezer ospatzera eta ez du ustekabeko ezer espero. Haren soslaiak noski, ez dio asko laguntzen: motxiladun bidaiaria da, zertzelada horrek dakarren gutxietsia izateko arriskuarekin. Horrek guzti horrek beste motxila bat, irudimenezkoa noski, baina etsikortasuna dariona *bideratuko* du: Frantzia estatua, bere jendea, hizkuntza (protagonista ongixko moldatzen da frantsesez eta italieraz, baina frantsesa okerreko belarritik sartu zaio, lau urtez ez baitu nonbait interesik jarri hura ikasteko), ez du gogoko. Soziolinguistikak aztertzekoa litzateke eleberriko protagonistaren herraren eragina hizkuntza bat baztertzeko.

Iritzia

Kattalin Minerrek plazaratu digun nobelak, arazo, auzi oso nabarmenak ukitzen ditu. Eleberria desberdinen arteko mundu bati egiten zaion hurbiltze xume bat dugu, gure ustez. Nola *bestelakoa* izateak prezio bat ordainarazten duen. Batzuentzat, gutxienak, txikia, agian, nimiñoa, besteentzat, gehienak, arazo edo katramila sortzaile izan ohi da. Nobela *light* bat da, azken finean, heteroei, batez ere, zuzendua, gogoeta egin dezaten *beste* jende marjinatuekiko harremanez. Eleberria, gure ustez, eta, besteak beste, bere heterotasunean bizitza aski eroso daraman jendeari dago zuzendua, bizimodu zailagoa duten kolektiboek egiten duten deia. Mirestekoa da, Minerrek eta beste askok kolektibo hauei ikusgarritasuna emateko egiten duten lan eskerga. Bestetik, espetxearen betekizuna zein behar lukeen oraindik orain hausnarketa eginik gabe datza gizakia.

IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

<https://www.liburutegiak.euskadi.eus/eibar>



@EibarLiburutegi



@EibarkoLiburutegia



@eibarkoliburutegia



@eibarkoliburutegia



Juan San Martin Liburutegia

Bista Eder, 10 (Eibar)

Tel. 943 70 84 37

liburutegia@eibar.eus